

KOSTUEN EGITURA

Ekoitzitako kopuruari erreparatuz gero, kostu finko (KF) eta kostu aldakorrak (KA) daukagu:

Kostu finkoak ekoizpenarekiko independenteak dira, hau da, euren balioa ez da aldatzen, ekoizpena aldatu arren.

Kostu aldakorrak ekoizpenarekiko proportzionalak dira, hau da, ekoizpena hazi ahala, kostu aldakorrak ere haziko dira. Adibidez, lehengaiak, lanaren kostua, energiaren kontsumoa...

Epe laburrean, kostu finkoak (KF) eta kostu aldakorrak (KA) bereizten dira. Instalazioan aldaketaren bat egitea edo makina berria erostea ezin dira epe laburrean aurrera eramanez, epe laburrak urte bete edo gutxiago irauten baitu; epe luzean, aldiz, faktore guztiak aldakorrak dira, urtea baino gehiago irauten duelako.

Orain aztertuko ditugu gure aplikazioaren kostuak:

KOSTU FINKOAK:

-Lokalaren alokairua : 700 euro hilabetero

- Makineriaren amortizazioa , hau da , ordenagailuak eta programak aplikazioa konfiguratzeko : 2000 euro

KOSTU ALDAKORRAK:

-Makina berria erostea : 1000 euro

-Instalazioan aldaketaren bat : 500 euro

-Beharra badago , kreditu lineak eta haien interesak :
egoeraren arabera

-Energiaren kontsumoa: 200 euro

-Langileen soldata : 1200 euro / langile bakoitzako /
hilabetero

-Publizitatea: 700 euro

